

ALTXORRAREN BILA: LIZARRAGA ELKANOKOAREN ABERASTASUNAK KAUSTU NAHIZ

Patxi SALABERRI ZARATIEGI

Beti gogotik irakurri izan ditut Joakin Lizarraga Elkanoko idazlearen izkribruak, ez, jakina, erakusten duten ortografia ederragatik edo egileak gaiak erabiltzeko zuen antze eta trebetasunagatik, han-hemenka aurkitzen ditugun bitxi linguistikoengatik, Iruñerriko euskararen berri ematen diguten erranairu, itzuli eta hitzengatik baizik. Iñaki Caminok eta neronek behin baino gehiagotan adierazi dugun bezala (ikus, adibidez, Camino, 2004: 28-31, 151 edo Salaberri, 2002: 231), ez dakigu nafar hiriburuko euskara xuxen nolakoa zen; baditugu zantzuak, hori bai, eta zantzuetatik haratago doazen inguruko herrietan opaturikako testuak ere bai, Bonapartek bildu eta Ondarrak argitara emandako materialak (1982), eta toponimia ikerketak (Jimeno & Salaberri, 1994 eta 2006), baina, erran bezala, gauzak nola ziren xeheki ez dakigu, eta Lizarragaren idazkiek, arretaz eta sakonki aztertuz gero, laguntza handia eman diezagukete Iruñeko euskararen gorabeherak ezagutzeko tenorean.

Egia da Elkanokoaren hizkera eta Bonapartek bildutako materialetakoa ez datozela zeharo bat eta, egoera honetan, logikoena Lizarragak, idazle zen aldetik, bere euskara *goratu* nahi izan zuela pentsatzea da. Goratze nahi hori zenbaterainokoa den oraino azterkizun dago, eta, era berean, elkanoarraren idazkietan Axularren eta Iparraldeko literaturaren eragina noraino iristen den ikusteko dago. Lizarraga urdazubiarraren liburuaren jabe izan zela badakigu (ikus Apezetxea, 1978: 211), eta franko garbi dago haren eragina suma daitekeela leku batean baino gehiagotan. Erraterako, ahoskabe aitzinean txistukari afrikatuak idazteko Elkanokoak duen joerak (*aiotska*, *ametsketan*, *beltzkara*, *errautstu*, *gaitzki*, *itzketa*, *itzkuntza*, *izotzketan*, *moldegaitzki*, *ortotsketan*, e.a.) Axularrena dakarkigu gogora (*bekhaitzkoa*, *bortitzki*, *buru-eragotzkarri*,

hatskeria, hautskorra, hitzkuntza, hortzkitzeintu, likitskeria, onhetski, e.a.). Era berean, elkanoarraren «*an izanen da negarra ta ortze(n) karratskotsa*» (UIGPL, 306)¹ pasarteñoak gure klasiko nagusiaren «*han izanen dela nigar eta hortz karraskhots*» oroitarazten digu, zeinek, menturaz, Joanes Leizarragaren «*han izanen da nigar eta hortz garraskots*»-en (San Mateo, VIII, 12) baituke iturrama². Halaber, *begien ertxi-idiki batean* (DCC, 230) esamoldeak erdarazko *en un abrir y cerrar de ojos* baliokidearen itzulpena dateke, baina Axularren “*begi herts-ideki baten bitartea*” eredia ere hor da (1976: 221), eta, orobat, Leizarragaren “*begi erts-ireki arte baten seguranzarik ez tuen (gorputz miserable eta gaixo hunen zerbitzatzegatik)*” pasarteñoa. Halaber, elkanoarraren «*dionak gero dio bego*» (UIGPL, 85), egileak «errefran»-tzat hartzen badu ere, Axularren «*gero dioenak bego dioela erakustea*» (Irakurtzaileari, 13) esaldiaren kopia dateke, ordena iraulketa goiti-beheiti.

Lizarragaren lanean Euskal Herriko ekialdera garamatzaten adizki, hitz eta esamoldeak ez dira bakanak; Caminok (2004: 10, 35) Aezkoako eta Artzibarko hizkeretarik dakusa hurbilenik Eguesibarkoa. Mendibururen jokabidea gogora dakarkiguten forma bikoitzak badaude Elkanokoaren izkribuetan, oiartzuarraren kasuan, ezaguna den bezala, erdi aldeko eta nafarrerazko eleak izaten badira ere elkarren aldakan agertzen zaizkigunak. Hona Lizarragaren etsenplu zenbait: «*Gaitz ta malhur guzietaik*» (JMESB, 35; *malhurreria* eta *malhurusa* ere badu, JLEL, 344, Iraizotz, 1979: 134), «*trabaju eta malhur agitzen direnes*» (JMESB, 423), «*...klabelinas ta lili lorees egiten den girmaldas edo arramilletas*» (Satrustegi, 1976: 218), «*tortxa edo zuzi andi miragarri bat itxekirik*» (JMESB, 171; dena dela, «*zuzi edo antortxa*» ere opatzen dugu, ibid., 441), «*ertxirik dendak, botigak*» (ibid., 453, 461), «*urtzintz edo atriya*» (ibid., 460). Beste batzuetan bi eleak ez daude bata bestearen aldameanean, baina biak ageri dira: *Martxant* (inoiz) (ibid., 423) / *merkatari* (usukarra) (ibid., 94), edo erdarazkoa eta euskarazkoa elkarren jarraian azaltzen dira, irakurleari lana errazte aldera, itxuraz: «*Venus, ta goizeko luzero artizarra*» (ibid., 537).

Antzetsukoa da *elemenio* ‘jende handia’, ‘jendetzea’ (JMESB, 457), baina honek, OEH-ren arabera, hedadura zabala du, baita Hegoaldean ere; *kaustu* ‘kausitu’ ere opatzen dugu Lizarragarenean (DCC, 88), Eguesibarren ibilia zelako seinalea datekeen sinkopa eta guzti; alabaina, *nor* adiztako hartzen du Elkanokoak, Luzaiden, errate baterako, *kausitu* beti *nork* aditza bada ere. Bestalde, Garaziko *errefusa* ‘erosleak ezin aukera dezakeen ardia’ (Kamino &

¹ DCCb 167n beste hau ageri da: «*Prosegitzen du lamentuan ta ortzen karratskotsan*».

² Diodan, bidenabar, Haranederrek honela itzultzen duela: «*...eta han izanen dire nigarrak eta hortz karraskatzeak*».

Salaberri, 2006) elearekin erlazionaturik dagoen *rebus* eta *errebus* ere badu Elkanokoak (*Koplak*, 133, 184). Nolanahi ere, hitz hori, beste azal batzuekin, Iberiar Penintsulako erdaretan ere erabilia da, Coromines & Pascualen hiztegiaren arabera (*fundir* sarrera).

Ekialde-Iparraldera garamatzaten beste hitz batzuk hauek dira: *Barber* («*eta bein zegolaik barbera emateko sualeak zango batean*», *JMESB*, 142), *begitarte* (*ibid.*, 172), *kredita* («*ta gendearen kredita ona zuena*», *ibid.*, 162), *otoi* ‘mesedez’ («*guarda benaza, otoi*», *ibid.*, 345), *surnatural* («*gero birtute surnaturalak grado goran*», *ibid.*, 526). Honekin batean *sobrenatural* ere badu, jakina). Mugaz haraindian eta Lizarragaren izkribuetan opatzen dugun beste ele bat *ukaldi* da, aitzinean beti kolpea zerekin jotzen den adierazten duen objektuaren izena heldu dela: *Adarrukaldi*, *arrukaldi* ‘harriukaldia’, *azotukaldi*, *eskukaldi*, *lixtukaldi*, *makilukaldi*, *palokaldi*, e.a. Guztiaz ere, Caminok (1997: 423) Aezkoan *adukaldi*, *makilukaldi*, *pizukaldi*, *sardukaldi* eta *ukaldi* bildu zituen, eta, beraz, kasu honetan Euskal Herriko ekialdeko ezaugarri baten aitzinean garela pentsatu beharko dugu, ez Lizarragak berariaz eta jakinaren gainean beretutako Iparraldeko atzizkiaren edo hitzen aitzinean. Iparraldera begira dauden beste ele batzuk ondokoak dira: *Ajent* («*Zein ajent ibiliko diren aingiruak...kuidatzen eriotzeko tranzean limosnagilleak*», Iraizotz, 1978: 250. Autore honek ‘diligente’, ‘solicito’ erran nahi duela dio), *alert* («*egones alert beira*»; ikus hirugarren oin-oharra), *errebel* ‘rebelde’ eta *konsient* ‘jakituna’, ‘ohartuna’.

Bestalde, gure autoreak Larramendiren hiztegia ezagutzen zuela bistako gauza da, ondoko ele hauetan ikus daitekeen bezala: *Zenakulo edo afaltegian*; *aldiritan*, *aldirita*, *aldiritar*; *arageitia* (ikus Iraizotz, 1978: 256), *arrustai* ‘zubi-arkua’, *atzeki* ‘buztana’, *diabetatu* ‘populatu’, *ezinde* ‘ezintasuna’, *galkidakor* ‘corruptible’, *gozande* ‘delectación’, ‘deleite’, *jakinde*, *jaundi*, *jomuga*, *legaraukiro* ‘zilegitasunez’, ‘legearen arabera’, *legenartsu*, *lekeltxor* ‘lentisco’, *lenijaio*, *nabarri* (*edo jaspe*), *neurkai*, *ondekidatu* ‘fundatu’, ‘zimendatu’, *urbagadak* (eta *urain bagadek*). Inoiz edo behin, gainera, burutara Beriain nafarra dakarkigun pasarteren bat badu: «... *zeñi erraten diogun Aita gurean, eman drazaguzu egunorosko ogia egun eta beti*» (*HGN2*, 655). Aipu honetako *drazaguzu* hori, dakigula, ez da berriz agertzen Lizarragarenean, baina **erazan*-en adizkiak ohikoak dira Utergakoaren izkribuetan, *eun*-enekin batean, hurrengo honetan erraterako: «*Zer eskazen diozu erraten duzunean gure egunorosko ogia eman drazaguzu egun?*». Dena dela, honelako adizkiek zenbait autorek uste baino luzazago iraun dute bizirik Nafarroan (ikus Salaberri, 2004: 546). Badaiteke, orobat, biek, Beriainek eta Lizarragak, iturri beretik edan izana. Zernahi gisaz, bigarren idazleak bere ohiko hizkerarekin akortago den «*eman dezaguzu gure egunoroko ogia*» dakar beste batean (*HGN3*, 1090).

Lizarragarenak irakurri dituenak ongi daki itzultzeketan ibiltzen dela, usu asko pentsatu gabeko iraultze lanetan aritzen dela, ezin baita onartu, Mitxelenak noizbait erran zuen bezala, gure apezaren eskuizkribu ugarietan kausitzen ditugun ezaugarriak Iruñerriko euskara *gaizkara*-ren isla direla. Ez dut ukatzen Iruñearen hurbiltasunagatik Kokoerriko hizkera kutsatuxe zegokeela, baina ez dut uste eguneroko solasean gure idazleak ibiltzen dituen moduko erdarakadak ibiltzen zirenik. Maiz ezinezkoa da, gaztelaniatikako maileguak maila jasokoak direlako, hizkuntza horretan eguneroko jardunean erabiltzen ez direnak, eta lehen ere erabiltzen ez zirenak, itxura duenez. Nolanahi ere, lan honetan Lizarragaren aberastasunak nabarmentzera mugatuko naiz, batez ere hiztegiaren arloan dituenak azpimarratzera, beste mailetako ezaugarri batzuk ere notaraziko ditudan arren.

Hasteko fonetika kontu bat aipatu nahi dut, Elkanokoaren lanetan eta egungo ekialdeko hizkeretan aurkitzen dugun hitz hasierako txistukari afrikatua hain justu ere, huts egiteko beldur handirik gabe handigarritzat har dezakegun *tz-* soinua alegia. Elkanokoak *zakur*, *tzakur*, *txakur* eta *txakurtto* ibiltzen ditu bere idazkietan. Lehena eta hirugarrena neutroak dira berez, baina bigarrena eta laugarrena beti adierazkorrek dira; bigarrenak mespretxua adierazten du eta laugarrenak, aldiz, maitasuna, errukia, e.a.: «*Ezta arrazio umeen ogia ematea tzakurrei. Andre umilak erran zio: Bai, Jauna, ezi txakurttoek ere jaten tute nausiaren maieko apur erortzen direnak*» (Apezetxea, 2001: 144), «*aingiruak okatzen ziren iago ezi zapo likitsas ta tzakur ustel urrinduas*» (DCC, 226).

Digrama hori bera beste hitz adierazkor batzuetan ere kausitzen dugu: «*Dira ja sei gizatzar*» (Koplak, 166), «*eztigu eman nola zezenei adarrak, nola artzei atzapar fuerteak, nola otsoei ortz sendoak, nola arranoei piko tzorroztak*» (UIGPL, 72), «*agertu tu bere besoko indarrak, / urratu tu ere / suber aundi tzarrak, / bota goratuak, / ta goratu txarrak, / entenda dezan munduak*» (Koplak, 34), «*tzorrozturik dauzkite beren miak*» (DCCb, 320), «*errepara bortz edo sei gaizki-eginak: 1^a. Tzut-tzuto egote gura tieso antustes*» (HGN2, 670; eskuarki *txutirik* ibiltzen du), «*kontatzen da monje bates Kredoaren itz gaietara tzut-tzuta paratu gabe belauriko*». Inoiz ibiltzen duen <z>-dun aldaera ere ez dabilkio hagitz urruti <tz>-ri: «*Errebelatu zio goart egin zezala non in zuten azienda gaiek muzurka zulo andi bat*» (JMESB, 153). Prozedura hau bizirik dago oraino, eta bizirik egon da Nafarroako beste alderdi batzuetan, euskara onik egon den bitartean, Artzibarren eta mendiz Eguesibartik biziki hurbil dagoen Esteribarko Ilurdotzen, adibidez. K. Artolak (2006) *tzakur*, *tzerri* (Arrieta eta Ilurdotz), *tzori* (Ilurdotz) bildu ditu.

Orain euskal gramatiketan hainbeste aipatu den puntu bat ukitu nahi dut, hain zuzen ere bokalez eta horzkari ahoskabez bukatzen diren adlatiboen artean datekeen aldeari dagokiona, hots, *-(er)a* eta *-(er)at*-en artean dagokeenari buruzkoa. Egileak arrunki erabiltzen duen aldaera bokalez bukatzen

dena da, baina *-t* duena ere badarabil, bestea baino gutxiagotan bada ere. Lekukotasunak ikusirik irudi luke horzkariduna gehienbat aditzondo sortzaile diren hitzekin azaltzen dela, baina izen arrunt eta bereziekin ere ager daitekeela, eta zenbaitetan hurbiltze adlatiboaren adiera ohi duela. Franko aldiz, ordea, hau ez da garbi ikusten: «*Ezi emengo bizia da bide eternidaderat, eta bizimoduaren ariora diogu zer bides doaien, ta norata doaien*» (DCC, 47), «*kangrejo edo karramarroa dabila gibelka edo atzerat. Nai omen ziote bein erakutsi karramarro amak umeei ibiltzen alzinerat, gaizki irudi zuela ta peligrroso aien ibiltze modua*» (JLEL, 336), «*barnatu beitirat zimendua*» (UIGPL, 75), «*utzis berzeak pasatzera alzina, gelditu ze atzerat bera*» (JMESB, 44), «*... erran ta atra ze kanporat baratzera*» (ibid., 58), «*ta tiratu zue leorrerat sarea*» (ibid., 60), «*azkenerat manifestatu zekiote zazpi diszipuloeri*» (ibid., 60, 247), «*ala ere, etze itzultzen, alik eta enkomendatu arteo Jangoikoai gau batez ososoa. Lokumatu zelaik goizerat, aingiru batek erran zio [...]*» (ibid., 252), «*sandak ontan zuen sineste bizia gerorat ezta ain admiragarri*» (ibid., 273), «*oneki agitz kontent Auriato paraturik abre zalui prestatuetan eskapatu ze Nafarrora Leire alderat*» (ibid., 284), «*infernurat bera pausu adiña pausu (sic) da zerurat gora*» (DCCb, 176).

Aditzaren arloan harrigarri eta are miregarri da, oraingo euskararen aldean, Lizarragarenak nolako aberastasuna duen, bai laguntzaile adizkietan eta bai trinkoetan. Autoreak berak dio euskara *gaizkara* egiten duela, ez biziki euskara ona alegia, baina hau ez dator bat aditzetan eta hiztegian erakusten duen ugaritasunarekin. Hona adizki trinkoen etsenplu batzuk:

- 1) Atxiki: «*Bere gizontasuna datxikola*» (DCC, 37), «*birtutea datxiko arimai betikos*» (ibid., 52).
- 2) Eduki: «*Ertxirik dauzki*» (JMESB, 208), «*gaixtotako dauzkizu berzeak*» (DCCb, 314), «*emen nauka errenditurik*» (JMESB, 339), «*ona, emen naukaze*» (ibid., 94), «*ni arrazioreki naukate emen*» (UIGPL, 121), «*zer ere bekatuetaik gelditzen zaizun biotzean, artaiek zauzki arrapaturik deabruak*» (HGN1, 327), «*guziok umeak / gauzki kontaturik*» (Koplak, 49), «*zein lotsaturik gauzkiten demonio goiek*» (JMESB, 526), «*alako ona zindeuka etxean, ta ixildu diguzu?*» (ibid., 352), «*berze monje batek zeuzkie altxaturik irur dukat*» (ibid., 336), «*orra guk ofenditurik gindeukan Magestadea*» (ibid., 22), «*bazindeuka zuk, ene umea, kandela bat itxekirik eskuan*» (HGN3, 990), «*ta ezpaleuka Jaunak bere eskutik, kapatz lizakela egiteko munduko maldadeak*» (JMESB, 455), «*baleuzki batek berregun milla dukat*» (HGN3, 811), «*komunkiro gelditzen ze komekaturik argis inguraturik, nola kristalesko urna bat barnean iruzkia leukena (sic)*» (JMESB, 526), «*bagindeuzki argi arimaren begiak!*» (HGN3, 891), «*eskaida goi baleukate purgatoriokoek*» (UIGPL, 99).

- 3) Egon: «*Eztagokida ongi*» (DCC, 150), «*ene Aitari dagozkion gauze-tan*» (JMESB, 213), «*kontino dagozkigu egiten gerra*» (ibid., 412), «*eta zegozkiolaik errelijiosoak asistitzen*» (UIGPL, 17), «*beira zegokiote ustez atra zerbait*» (JMESB, 213), «*ja ez nagoke ni iago emen*» (ibid., 431), «*etzaudezke, dio, bustarri edo sujeziorik gabe*» (HGN1, 31), «*ta ain guti ontzea zertan dagoke?*» (UIGPL, 163), «*Jangoikoas seguro gau-dezke guziok, baña nior ez bere buruas*» (DCC, 47), «*bi amore elka-rren kontrakoak eztagozke biotz batean*» (DCCb, 347), «*zergatik nin-degolaik goseak eman zidaten jatera; egarriak nego, ta eman zidate edatera*» (ibid., 261), «*ongi negokelaik / gaizki paratu naiz*» (Koplak, 120), «*baña nola zegoke ain eri, sor ezpalitz?*» (UIGPL, 250), «*oh banego mundurako / ilik emen ta orzirik, / ala obeki zerurako / nin-degoke bizirik*» (Koplak, 154), «*ni negoke obligaturik*» (ibid., 153), «*bazindeude bekala purgatorioan*» (Iraizotz, 1979: 131), «*istante zin-deuzke barkatua*» (HGN1, 276), «*balego arren eskuan*» (JMESB, 409), «*bagindeude, justizia eginik, leku triste gartan*» (DCCb, 166), «*baña arriturik gindeuzke pensatzen, nola edo zer gisas*» (HGN3, 978), «*espiritu gau legoke ilik*» (DCC, 199), «*ta milagroak ere baleude kari-dadeik gabe*» (UIGPL, 292), «*baut uste anitzes, eta seguroago leudez-kela aien eskuetan gauzak senarrenetan baño*» (HGN1, 492), «*agitz obeki legokida (sic) izatea itsu*» (JMESB, 500), «*zaude, nik egiten dute-na zuk eztakizu orai*» (ibid., 211), «*bego emen*» (DCCb, 196), «*gauden firme beraren grazian*» (ibid., 197), «*zauzte geldi, ez beldur*» (JMESB, 159), «*beude, dio Jaun andiak*» (UIGPL, 72).
- 4) Ekarri: «*Ortako dakarrat abitu gau*» (JMESB, 417), «*guziendako dakarra mats*» (DCCb, 223), «*ta dakarzuki orazioak*» (JMESB, 443), «*zer akusazio dakarraze gizon gonon kontra?*» (ibid., 49), «*oraiko arantzeek dakarzkite ango loreak*» (UIGPL, 76), «*olio ta argi zekarra-la*» (JMESB, 450), «*an zoeielaik oroitu ze zekarzkiela bereki bere eli-zako errelikarioain gilzak*» (HGN1, 272), «*bi korona zekarzkiola autara*» (UIGPL, 326), «*zeren ezi zekarrate ordena*» (JMESB, 462), «*bazindekarzki onara zuk mundu guziko bekatuak*» (HGN1, 276), «*baña ori baizik ezpalekar, falta lekiok obena*» (HGN3, 865), «*baña zetozonek balekarte batak zerillatto bat, berzeak zirio andi bat*» (ibid., 990).
- 5) Erabili: «*Eta ala zeabilatat erdi zoraturik ingur-ingur*» (DCCb, 277), «*dabilate bat ala nola zanbalabuzkan, aurren joku gartan, gora bera, ja kanonizatzeunte, ja kondenatzeunte*» (ibid., 316), «*Jesus onaren odol preziosoa bekala, oinpetan zebilatena*» (JMESB, 159).
- 6) Eraman: «*San Lorenzo, daramana bere izenean bere triunfoaren lau-rela*» (JMESB, 492), «*nik gorputzean ere badaramazkit ene Jaun Jesu*

Kbristoren markak» (ibid., 476), «*zer damazu or?*» (ibid., 434), «*one-txeke narama infernura*» (DCCb, 321), «*uzbezките, ezi naramate izatera martir*» (JMESB, 362), «*namate ebek arturik*» (Koplak, 176), «*beti zerama bereki*» (JMESB, 87), «*baizema bereki*», «*sanduak bereki zemazkie*» (ibid., 432), «*utzi zizkio zamazkien tresenak ere*» (ibid., 517), «*ontas landara kanzer idor batek zeramazkio xanes petxoa, besoak ta aurpegia*» (HGN1, 456), «*bazemate*» (JMESB, 418), «*zeramazkite justiziatzera karro batean bi gaizkiegille famatuak, ta zemazkite tormentatzen bidanabar*» (ibid., 175), «*balema bekala indio bat bere soñean ezin jasis*» (ibid., 84), «*balemate arrapaturik*» (ibid., 47).

- 7) Erauntsi: «*Abenduaren erditsutan elurra zreunsala*» (JMESB, 248), «*ortara zoeielaik bein Rabenara, berandurik bidean ilundu zekio elurra zreunsala*» (ibid., 441).
- 8) Etorri: «*Andik datorkio arimari infinizio bat on*» (JMESB, 538), «*eta orgatik datozi plagak*» (UIGPL, 164), «*eska zozie zuek Jangoikoai, eztatorkidan diozenetaik deus ere*» (JMESB, 474), «*...zeñen medios datozkigun ondasun guzia!*» (DCC, 37), «*gaitzak permititzen baitu datozkioten*» (ibid., 52), «*bakarrik daudelaik ere datorzkioten gogorazio gaixtoak*» (Satrustegi, 1976: 222), «*nondik datorke batere onik?*» (OILI, 79), «*ez erran ta ez egin beñere deus, nondik datorzkiuguen (sic) estimazio*» (HGN2, 535), «*gu nor bagara, bagatozke seguro kon-tuetara*» (HGN3, 858), «*ezi gorputzarenak baitatozke nai eztugulaik*» (UIGPL, 345), «*...seguraturik Adrianok abisatuko zuela noiz bear zen izan martirizatua, zetorren egotera presente arren martirioan*» ‘etor zedin’ (JMESB, 249), «*obe da itz batez erran, zetozin guziak sandagana*» (ibid., 445), «*... dio Elizak, zetozkigungatik bizitza nondik etorri zekigun eriotzea*» (DCC, 84), «*etzute ikusten zetorkiotena*» (UIGPL, 242), «*baletor ilas geros bizturik norbait berze mundutik*» (ibid., 278), «*zenbat on letorken, ongi guarda baledi, oraiko, geroko ta betiko!*» (JMESB, 32), «*ta baletozki guziak artan itxekitzera beren kandelak*» (HGN3, 990), «*bera baletorkizu amoroso*» (ibid., 1055), «*bagindeude iletsiturik erremediorik gabe; ta derepente baletorkigu bat kofretto bateki ongi ertxirik eskuan, ta erran balezaguz: Torizie*» (HGN1, 114), «*baletozkio bere etxera, ez neike admira*» (HGN3, 1013), «*Lazaro, atoz kanpora*» (UIGPL, 57), «*zato erdira, erraten dio gizonai*» (ibid., 55), «*betor, ikus bez*» (JMESB, 417), «*baña gatozin bere eriotzera*» (ibid., 430), «*atozte ene Aitaren bedeikatuak*» (DCC, 265), «*zatozte bada enegana*» (ibid., 64), «*betoz xakintsuak, lei bezadate zer dion an*» (UIGPL, 43), «*betozki munduko pobreak*» (HGN3, 912).

- 9) Etzan: «*Zerengatik ura gabe ila baitatza gure arima*» (HGN1, 37).

- 10) *Eun edo ukan*: «*Garbiena, sanduena, faltarik ta sobrarik eztuena ta eztukeena*» (JMESB, 309), «*eta bildu tukenak noren izanen dire?*» (DCCb, 308).
- 11) **i*- 'eman' (ikus Lafon, 1980: 228 eta hurr.): «*Idazu, seme, zeure biotza niri*» (Iraizotz, 1978b: 474), «*idazie gizon bat estena inkietatzen*» (ibid.), «*bida bizpirur egun biltzeko*» (JMESB, 493), «*gure Etxokandre dibinoak bigu grazia*» (DCC, 207), «*orai bada, seme, Jangoikoa biz zureki, ta dizula fortuna*» (Iraizotz, 1978b: 474), «*Jangoikoak digula argi*» (JMESB, 140).
- 12) **io*: «*Eztiot nik solamente zazpi aldis*» (JMESB, 211), «*baña laburtzeko solo tiot pausu prinzipal(en)ak*» (UIGPL, 49), «*gaizki diozu*» (JMESB, 238), «*au ziola, dio S. Juanek*» (ibid., 41), «*Marineo Sikulok tio itz gebek*» (ibid., 451), «*ze fortuna! dioze*» (DCC, 72), «*deus ezute balio zuen onetsiek enearen aldean, ta ez present tiozen guziek niri eman didanaren aldean*» (JMESB, 301), «*ezaunduko duzie egia dela diotena nik, ta falsu diotena herejeek*» (ibid., 240), «*nio nik len*» (UIGPL, 324), «*ala zindio orai zenbait urte, ala zindio joan den urtean*» (HGN1, 233), «*gorputzas dena dela, biz salbo arima, zio*» (OILI, 81), «*ebek bidean asi zire mar-mar goseak, ziotela elkarri [...]*» (JMESB, 429).
- 13) *Ibili*: «*Nabila xakin naies zergatik*» (JMESB, 388), «*an zebiltza bisitatzen pobreak*» (ibid., 423), «*balebila ain hurbil atarirat*» (HGN3, 1012), «*pensa nola lebilzke(n), ezpalitz*» (UIGPL, 100), «*baña bebil-tza xakin naies alako medioes*» (DCCb, 196).
- 14) *Ikusi*: «*Bide erreala dakusat eta ez bidexenda*» (DCCb, 175), «*bada eztakusazu ori dela imposible?*» (DCC, 119), «*nork eztakusa emen Jangoikoaren eskua?*» (ibid., 113), «*badakusaze ja*» (UIGPL, 359), «*bizikideak zekusalaiak ain liberal*» (JMESB, 361).
- 15) *Iraun* (*iraun, iraundu*): «*Ta itz errealararen birtutez dirau, eta irauen du*» (JMESB, 44), «*eztire pasatzen, betikos diraute*» (DCC, 240), «*arriturik nola zirauen ainberze*» (HGN3, 811).
- 16) *Irudi izan*: «*Neke dirudi*» (DCCb, 254). Honelakoetan *irudi* zue-ren modukoak ibiltzen ohi ditu.
- 17) *Izan*: «*Garade lurreko animaltoak*» (eskuarki *gara* badu ere, jakina; UIGPL, 130), «*nondik dateke deus onik?*» (Koplak, 58), «*banitz persona nukena autoridade eskribitzeko*» (JMESB, 427), «*ortako beira nola zaren, ta nola zinazken*» (UIGPL, 243), «*guziok ginazke sandu*» (UIGPL, 168), «*alfer lirazke*» (DCCb, 362), «*biz bekatu originala petxa bat*» (JMESB, 18).

- 18) *Jakin*: «*Guk bazeakitau Moisesi mintzatu ziola Jangoikoak, baña au nondik den etzeakitau*» (JMESB, 36), «*au zio, baizekie nor zen traidorea*» (JMESB, 471), «*ta zekizkienak sandu izanen zirenak*» (ibid., 425), «*ezkindekite lurrekoek nola kuadratu Jangoikoai*» (HGN2, 656), «*etzindekite zuen iltzea sentituko zutela zeuren propioek?*» (JMESB, 390), «*nik barin baneki Jangoikoak ala erran duela, sinesta nezake*» (DCC, 112), «*bazindeki Jangoikoak in dizun faborea*» (JMESB, 39), «*oh ene Ama ona, baleki on egin didana azione gorreki!*» (UIGPL, 25), «*ditxosoak gizonok, bagindeki estimatzen ongi gizon dibino gura!*» (DCC, 37), «*balekite, zuek bekala, ebek, an esperatzen duguna*» (JMESB, 119).
- 19) *Jarduki*: «*Zertako dardukat klaro dena?*» (JLEL, 332), «*onek blasfemia darduka*» (JMESB, 35), «*berzea gurutzea; eta ontas dardukagu*» (DCC, 82), «*bada aditze gontas (aditzeas obeditus) nerduka*» (JLEL, 345), «*etzekiela zer zerdukan*» (UIGPL, 93), «*erik aiturik, ta entendaturik S. Malakiasen zerdukatela [...]*» (JMESB, 289).
- 20) *Jario (jarin)*: «*Borboraka zerio odola*» (JLEL, 338), «*bi begietaik negarra zeriola*» (JMESB, 24), «*abuña zeriola agotik*» (ibid., 123), «*odola zerio barrataka alde guzietaik*» (ibid., 318), «*erdea zeriola agotik*» (ibid., 408), «*zerura beiratzeas ere zerizkio negarrak*» (ibid., 383), «*orazioaren sutegian gorituak atratzen zitue sua zeriotea, urratzeko, peñak ere, bronzeak ere*» (ibid., 441).
- 21) *Jarraiki (xarreki)*³: «*Jangoikoaren amoreari darraio proximoen amo-*

³ Pagolak eta bestek argitaratutako lanean (HGN4, 1519) *barraio* forma ageri da, zein egileek *jarraiki*-ri atxiki eta *nor-nori* sailaren barnean kokatzen baitute. Lekukotasuna, hots, forma hori azaltzen den pasartea hau da: «Segitzen da atenzioa, egones alert beira nor nori ta nola mintzatzten garen, zeren ezi emen gorputza ta gogoia barin badago *barraio*, nola bear du aditu alako orazioa, eztuelaik aditzen iten duenak berak?» (HGN2, 628). Etzana gurea da. Bistan denez, *barraio* honek ez du zerikusirik *jarraiki* edo *xarreki*-rekin, ez baita aditza, adberbioa baizik, barratu 'barreiatu'-rekin lotua dagoena, jakina, *marranko* adberbioa *marrankatu* aditzarekin dagoen era berean. Honelako hutsak badira adizkiak sailkatzen diren lanaren atal honetan. Beste batzuk: *bazindauka* eredu batuan *bazinduzka* erranen genukeena dela idazten dute, hots 'hark zu bazinduzka, bazintu', berez izkribuetan opatzen ere dugun *bazindeuka* bezala 'bazeneuka' 'bazenu' besterik ez bada ere; *banezkike* 'bane-kizki' dela uste dute autoreek, baina euskara batuko *banitza* (*ikus banitza* 'ikusiko banitu') baizik ez da, *para balezki*, errate baterako, 'para balitza' den modu berean. Azkeneko bat, zerrenda sobera ez luzatzeagatik: *nindegoken* iraganaldiaren barruan sartzen dute, baina testuinguruak alegiazkoa dela garbi samar adierazten du: *Oh, bizitu banitza sanduetaik bat bekala beti! Nola nindegoken, ta nola nagon!* (HGN2, 700), hots, 'Oh bizi izan banintz sanduetako bat bezala! Nola nengokeen eta nola nagoen!'. Hiztegian ere badira zuzendu beharreko gauzak; adibidez, *kuntze* 'zulo', 'arraildura' dela diote, baina testuak ikusirik argi dago

rea» (JMESB, 185), «*baña darraizkio atzetik bakotxai bere obrak*» (UIGPL, 15), «*naiz emen zenbait gaixtoei darraioten beren gaizki egimen kastigoa*» (DCC, 186).

- 22) Joan: «*Inporta da anitz noaien, itzuliko naiz fite*» (JMESB, 422), «*ilarazi benaza fite, eztoaien bakarrik ene aizpa*» (ibid., 283), «*norengana doazin*» (DCC, 33), «*nola doakizu?*» (OILI, 78), «*nola doakio?*» (JMESB, 189), «*badoakiotela idikitsera ataria*» (UIGPL, 272), «*nora ni, ja nora / noake galdurik / ezpada amaren mantora?*» (Koplak, 65), «*oneki bazoazke seguro logratuko uzula nai duzuna beraganik*» (HGN2, 629), «*eta ala guti-guti doake emendatus*» (UIGPL, 162), «*bazoazkete nauzen lekura*» (JMESB, 283), «*dire bide diferenteak, nondik doazken guziak*» (HGN1, 473), «*galdegin zio probinzialeak nola zoekion*» (JMESB, 204), «*bazoekiotela beren aita*» (ibid., 422), «*konbeni zaize noaien ni, zeren ezi ezpanindoie [...]*» (HGN4, 1265), «*berla balidoeie mundutik, lidoake zerura zuzenean*» (DCCb, 368), «*oroat nola bagindoezi atrazera geuren eskus suertea edo boleta*» (HGN1, 301), «*nola gindoazke guziok boladan adoratzera gure Erreina soberana?*» (HGN3, 1064), «*nola balidoazi (sic) kuarto bate-tik bestera*» (HGN1, 236), «*zein laster lidoazken arren atzetik ebek?*» (DCCb, 326), «*ala balidoekio kontatus gañarako gauza munduan diranak*» (DCC, 109), «*baña berla eman zio eskritorioko giltza, bido-eie Jangoikoreki, ar bez nai duena*» (JMESB, 89), «*biek dugu intenzio bera, goazen uniturik batean*» (JMESB, 229)⁴, «*bidoezi, bidoezi fede gutitakoak ikustera begis*» (HGN3, 1053).

Ez dira gutxi, ezta ere, trinkotu diren aditz perifrastikoak, gehienak edo denak ahaleran edo agindu adiera duten subjuntiboko adizkietan: «*etxok etxok guti bat*» ('itxoin, itxoin pixka bat', JMESB, 331. Cf. Intzak [1974: 141] biltzen duen *autxok, autxok: orain (sic) artuko tuk ireak*), «*etxek, etxek Martiniano*» ('itxoin, itxoin', JMESB, 410), «*egizu hori ta salbatuko zara*» (UIGPL, 254), «*eramazu bularretan*» (DCCb, 190), «*errazu aitu duzula*» (DCCb, 204), «*idukazu presente eriotzea*» (UIGPL, 341), «*itzulazu ezpata goi bere magira*» (JMESB, 212), «*izazu Jesus onari amore ta fede bizia*» (OILI, 79), «*zauzte erne, ta orazio egize, etzaizten erori tentazioan*» (JMESB, 212),

'marka' dela, eta *zukure*, gure irudiko, ez da autoreen «*zuzkur, arto-lasto, txorkotx*» (HGN4, 1686), 'azukrea' baizik. Testuinguruak argi samar uzten du: «... eta arrazioak ere moztazen du, ezi gizonkia da animale jenero bat ez palos, ez bortxas, ez furias domazen dena, baizik dulzuras ta modu onas; dulzazeko idisagarra, usatu bear da almibar ta zukure». (HGN1, 489).

⁴ Ilurdotzen *gõazin* bildu du Artolak (2006: 412).

«*ikasazie eneganik*» (ibid., 31), «*izazie beldur Jangoikoai, ta emozie dagokion honra*» (ibid., 432), «*gorazkize, o prinzipeak, zeuren atariok*» (DCC, 176), «*uzkizie ebek doazila*» (JMESB, 46), «*emagun, diote, pregonariaren kontra*» (UIGPL, 337), «*erakutsagun zeñatzen eta santiguatzen*» (DCC, 86), «*erragun diote, erregla dela makur*» (DCCb, 176), «*jardukagun lenik amoreas*» (ibid., 183), «*garaizkigun gure jenio gaixtoak*» (UIGPL, 326), «*aipazkigun batzuk*» (DCCb, 189), «*kontazkigun zenbait*» (JMESB, 38), «*au arturik emozute nere eta zure partez*» ‘*emaiezu*’ (ibid., 471).

Iruñerriko hikako alokutiboa ere maizxko agertzen da Lizarragaren lanean, egileak aipatzen dituen bi pertsonaiaren arteko jardukian, bistan denez, toketan partikularzki, baina noketan ere bai, zenbait aldiz. Hau, berriro ere, ez da ongi konpontzen euskara kaskarra egitearekin, erregistro aberastasuna azken batean hizkuntza aberastasunaren seinale delako. Hona hemen tokako etsenplu batzuk: «*Guk justoki pagatzen tiagu pena merexi tugunak, baña onek ezтик kulparik*» (OILI, 80), «*nora joan aiz? Non aurkituko aut? Ator ta il nazak*» (DCC, 279), «*ago or [...], or egon bear duk, madarikatua, ez aiz atrako [...]. Madarikatu orrek emen emen egon beauk [...]. Eztuk il bear*» (DCCb, 167), «*goaie ordik Satanas, eskribiturik zeagok [...]*» (ibid., 187), «*oh gizon gezurti falsua, ire andrea ekartzeko erran nia eta dakarrak ene tormentu dena, Jangoikoaren ama. Esker emok, ezik ezperen pagatuko zindute emen ik ta ire andreak*» (ibid., 200), «*goaie i, arren diszipulo izan adi, ezi gu Moisesen diszipulo gaituk. Guk bazeakitau Moisesi mintzatu ziola Jangoikoak, baña au nondik den etzeakitau*» (JMESB, 36), «*S. Pedrok erran zio serio: “Ire dirua biz ireki perdiziotako, uste baituk Jangoikoaren donoa erosten dela dirus. Itz goiek eure kontra tuk, ezi ire biotz goi eztuk zuzen Jangoikoaren alzinean. Intzak penitentzia gaixtakeria gortas, nai badik barkatu Jangoikoak, ezi ikusten diat agola loturik gaixtakeriaren lakioan”*» (ibid., 474), «*enegatik in bazue alakorik, egonen nuta gogotik kur-kurra juizioko eguneraño*» (DCC, 137), «*etxek, etxek, Martiniano, nik eroriaraziko aut, ta joanaraziko ordik konfuso, naiz agon konfiaturik dioken gortan*» (JMESB, 410), «*iltzikik, ebakizkiotek buruak*» ‘*hil itzak, ebaki iezazkiek buruak*’ (ibid., 533), «*ekarrak onat*» (HGN3, 883), «*to, leitzak*» (UIGPL, 235).

Noka gutxiago agertzen da Lizarragaren izkribuetan, baina badira leku-kotasun batzuk, ondoko hauek besteak beste: «*No!, bolsa txerriak jan din baña ik erran zon bere andreak artu duela gastatzeko urliareki, baitu adiskide*» (DCCb, 196), «*nola ilaraziko dun ene semea?*» (JMESB, 122), «*goaie ordik, eztun zer urbildu enegana*» (ibid., 481), «*utzan, sorgina dun, ta deabrua zeagokion mintzatzen*» (ibid., 532), «*edan zan deabruareki*» (Iraizotz, 1979: 134).

Beroriketa ere frankotan azaltzen da elkanoarraren idazkietan, erdal tes-tuko tratamenduaren ordaintzat behar zuelako, jakina: «... *baña ez nautena*

nik, baizik orrek nai duena egin bedi» (OILI, 82), «ar bez au, kuidado ez solta, ezi joain zaio birtutea; para bez begien gañean eta ikusiko du» (DCCb, 191), «Jauna, para bezo ene agoari guardia bat» (ibid., 209), «oh!, Jangoikoak permiti balez orrek urteak egun adiña ume izan dezan!» (ibid., 212), «zergatik galdegiten dida niri? Galdegin bez aditu nautenei» (JMESB, 47), «Jangoikoai erraten zio, Jauna, guarda benaza, otoi, ta iduki benaza bere eskutik, ezperen itzuliko nazaio traidore» (ibid., 345).

Guztiarekin, hiztegiaren arloa da, nire ustez, elkanoarraren lanetik gehienik baliatu behar genukeena. Arlo honetan atzizki bakan zenbait ukitu nahi ditut; lehena Nafarroan hain erabilia den eta izan den *-kara* dugu. Azkueren arabera (1969: 19, 201-203) anitz ibiltzen da atzizki hau goi eta behe nafarrean, lapurteran, erronkarian eta zubereran. Iñaki Caminok, bere tesian (1997: 425), Aezkoako erabileraren adibide batzuk jasotzen ditu: *Azkarkara*, *debilkara*, *txikikara*, *zaharkara* eta *zelaikara*, Elkanokoaren *bezperakara*, *gogorkara* eta *neketankara*-z landara. Salaburuk eta Lakarrek ere Baztanen bildutako sail ederra dakarte (2005: 392-393): *Auzelankara* ‘auzolanean-edo’, *bizikara* ‘nahiko bizia’, *kezkatukara* ‘kezkatu itxura’, *maingukara* ‘maingu airean-edo’ eta *zakurkara* ‘nahiko zakurra’, besteak beste. Luzaiden Peio Kaminok eta biok (2006) *ilunkara* («denbora hau ilunkara diagok») eta *zalu-kara* («mutiko hura zalukara joan zen») bildu dugu.

Lizarragaren lanetan ondoko hauek ditugu, besteak beste: *Arinkara* ‘arin antza’, *axalkara* (‘un tanto superficial, poco profundo’: «Gasteak axalkara du orañ birtutea», Iraizotz, 1978: 265), *beltzarankara* ‘beltzarankxa’, *beltzkara* ‘beltz antza’, *berantkara* ‘beranduxe’, *deskoloritukara* ‘koloregabea bezala’, *desobedientekara*, *dudankara* ‘zalantzan bezala’ («dudankara egon ze», JMESB, 437), *epelkara* ‘franko epelkiro’, *errukara* ‘franko gogorra’, *ertxikara* eta *mear ertxikara*, *eutxikara* ‘zeken antza’, *gogorkara* ‘gogorxko(a)’, *gorrikara* ‘gorri antza’, *gutikara* ‘gutixko’, *ilkara* ‘nahiko hila’, *ilunkara* ‘ilunxkoa’, *kariokara* ‘garestitxoa’ *lazkara* ‘nahiko latza’, *luzekara* ‘luzexkoa’, *nagikara* ‘nagi antzean’, *nekekara* ‘neketsua, nekeza’, *neketankara* ‘zail’ («Beira: beñik bein bidea bide erreala da berez, baña pasatzea neketankara dago, zeren bidean persegitzen gaituten etsaiek», DCC, 50), *penosokara* ‘franko gogorra’, *sorkara* ‘franko gor’, *txipikara* ‘tipixkoa’, *txurkara* ‘urri antza’ eta *urrunkara* ‘urrunko’.

Ikusten den bezala, adjektiboak eta adberbioak dira *-kara* atzizkia ezarritakoan ateratzen direnak, oinarrian zegoenaren arabera. Erranahia, nik uste, garbi gelditu da itzulpen-azalpenetan. Nolanahi ere, hiru lekukotasunetan mintzagai hartu dudan atzizkiak beste erranahi bat du, Iparraldean ibiltzen den *-kari* “denborazkoaren” parekoa. Alegia, Lizarragak «eta proponitu ziote bazkoa-bezperakara libratu behar zelaik preso bat haiek nabi zutena, ia zein nahi zuten libre, Jesus edo Barrabas» (UIGPL, 50), «eta bazkoa-bezperakara

libratu bear delaiak preso bat» (DCC, 162), «*proponitu zioten judioei bazkoa-kara zein nahi zuten bietaik libre, Jesus edo Barrabas*» (UIGPL, 143) dioenean ‘pazko bezperakari’, ‘pazkokari’ erran nahi du, hots, ‘pazko bezperaren karietara’, ‘pazkoa iristean’ edo antzeko zerbait. Modu berean «*horreki utziko dut doaien libre bazkoa-egunkara*» (JMESB, 50) dioenean ‘horrekin utziko dut joan dadin libre pazko egunean’ adierazi nahi du.

Elkanokoak ibiltzen duen beste atzizki bat *-zutu* ‘-aro’, ‘-zaro’ da, ondo-ko hitz hauetan: *Aurzutu*, *estudiantezutu*, *gastezutu*, *mutikozutu*, *mutilizutu*, *txikizutu* edo *txipizutu*, *zarzutu* (UIGPL, 42). Atzizki hau ez zen bakarrik Elkano aldekoa, Bonaparteren materialetan (Ondarra, 1982: 167) Eguesibarko herriko *aurtzutu*, *gastezutu* eta *zartzutu*-rekin batean Garesko *aurtzuta*, Oltzako *aurtzitu*, *gazteztu* eta Goñiko *aurtzutu*, *gazteztu* ageri direnez geroztik, nahiz hondarreko hiru herriotan *zartzaro* erraten zen, ez *zartzuta*, *zartzutu*, edo *zartzitu*; Garesko *gaztetasun* espainoleko *juventud*-en itzulpena da, hau gutxienez bisemikoa baita. Irudi duenez atzizkia Nafarroako ekialdekoa zen; Caminok Hiriberri Aezkoan *aurzutu* bildu du (1997: 430).

Lizarragaren lanetan aurkitzen dugun beste atzizki eder bat Euskal Herriko ekialdean ibili eta ibiltzen den *-kal* dugu, Azkueren arabera (*Morfología*, I, 245) gaztelaniaz *por* itzul daitekeena: *Aldikal* ‘por turnos’ (Erronkari), *burukal* ‘(tanto) por cabeza, conforme al número de personas’, *haurkhal* ‘por niños, según su número’ (Amikuze). Caminok (1997: 425 eta 2004: 79) atzizkiak Nafarroa Garaian duen hedaduraz hitz egiten du eta Larraungo *etxekal* ‘etxeka, txandaka’ eta *idurikal* ‘iritzira, irudi batera’ aipatzen.

Elkanokoaren lanetan *erdikal* ‘erdizka’ izan daiteke: «*Berze batzuk dire erdikal edo erdiska dabiltzanak, ja Jangoikoaren ja deabruaren, ja konfesar-tzen, ja iresten bekatu mortalak*» (Satrustegi, 1976: 224) eta orobat ‘bitartekoa’: «*Arrai txipi, andi, erdikal*» (JMESB, 461), «*gorputzaren neurrian ze erdikal, ez gora ta ez apal*» (ibid., 240), «*batzuk gaixtoak, berze batzuk onak, berze batzuk medianoak erdikal*» (UIGPL, 362-363). *Idurikal* ‘goiti-beheiti’ ere badarabil: «*Atra kontu idurikal, nolakoa bide den paraiso gura*» (DCC, 125), «*baña gauza gura, zeintan aldatzen den, bear da izan ain ona, nola berzea idurikal*» (DCCb, 217), «*berze alde in daike ez ain xee ki ro, baizik larri-xago idurikal*» (ibid., 404). *Astekal* ‘asteka’ («*uste duzie dela lurreko nausiak bekala, alokatzeko astekal, edo ilka, edo urteka?*», HGN1, 328), *astekal* eta *egunkal* ‘asteka eta egunka’, *burukal* ‘buruko’, ‘buruka’, *egun eta urtekal* ‘egunka eta urteka’ ere baditu.

Elkanoar idazleak aberastasun izugarria du atzizkietan eta mereziko luke noizbait honen gaineko buruan besteko lana apailatzea, baina ez da hau horretarako leku aproposa. Hiztegiaren arloa biziki zabala da eta hemen ere dokto-

rego tesi ederra egin daiteke Lizarragaren jokabideaz, erdaratikako hitzak euskaratzeko segitzen duen moldeaz, eremu semantiko bakoitzean ibiltzen dituen eleaz eta bestez. Erraterako, zaratarekin loturik dauden hitz hauek darabiltza, besteak beste: *Aiots*, *ainkuria* edo *zinkuria*, *arroitu*, *asots*, *atsanka* (erraztasun handia du adberbioak izen bilakatzeko; cf. *besarka* ‘besarkada’, *emanka* ‘liskarra’, ‘egurraldia’, ‘joaldia’), *bonbots* edo *bunbots* (garren eta suaren zarata), *burrumba*, *erots* (‘ekaitz zarata’, ‘zurrumurrua’, ‘marmarra’), *futots* ‘bufido’, ‘refunfuño’, *garraxa* ‘garrasia’, *irringa* ‘crujido (de la carne al asarse)’ (Iraizotz, 1978b: 476), *iskiritu* eta *ixkiritu* ‘oihua’, garrasia’, *maraxka* edo *marraxka* ‘bramido’, *marmarrots*, *oiu*, *soñu*, *txistu*, *zalaparta*. Orobat animaliek egiten dituzten beste hauek: *Txainkuria*, *aunka* (zakurrak), *antzaraka* (zerriak), *kirrinka* (zerriak eta gurpilak), *bee* (ardiak), *karaka* (oilok), *karrika* (antzarak), *kurruka* (usoak), *marraka* (ahuntzak eta ardiak; katuairengatik *marrakari* dela dio gure idazleak), *marro* (behiak, zezenak, lehoiak), e.a.

Iruñerriko lanbideen izenen berri ere (hau hagitz zentzu zabalean hartzen dugula) jakin dezakegu Lizarragaren izkribuen bitartez, zenbait gaztelaniak hortaratua ibiltzen baditu ere; hona hemen horietako batzuk: *Alkate* eta *ezi-negotzi*; *apez* (eta *sazerdote*), *apezaita*, *apetxaun*, *erretore*, *prigore* eta *priore*; *argin* (→ *argingo*); *arotz*; *artzai* (→ *artzaiesa*, segur aski gaztelaniako *pastora* itzultzeko, → *artzaingo*), *artxaun* (< *ardi* + *xaun*), *altsai* eta *artxaiko* ‘artzai gaxtea’; *arraiketari* ‘arrainen salerosketan dabilena’ ustez; *arrantzari* edo *arrantzuari* ‘arrantzalea’; *atezai*, *atelzai* edo *atalzai*; *aurtzai*, *baratzezai*, *barber*, *eixtari* (eta *eiziari*; ez dugu aiantzi behar berriki arte, gurean eta bestetan, ehiza ogibidea izan dela), *emagin*, *erizai*, *errotazai*, *eskribau*, *etxokandre* eta *nausi-etxokandre* ‘etxeke jauna eta etxekeandrea’, *gubernari* (eta *mandatari*; hau ‘agintaria’ ez ezik ‘mandatuketaria’ ere izan daiteke), *guardia*, *idiskile* ‘itzaina’, ‘itaurrean doana’ (*JMESB*, 269), *igitarle* ‘igitaria’, ‘igitan aritzen dena’, *ikazgin* edo *ikazkin*, *karzelzai*, *kisuskille*, *kopazai* ‘copero’ (Iraizotz, 1978b: 125), *kozinari*, *kuidazale*, *langin* (cf. Iruñeko *Langinobreria* ‘langileen kofradia’ toponimo historikoa), *maestru* (*erakustun* ere bada), *mariñel*, *maxter* edo *etxamaxter*, *meatzari*, *mediku*, *merkatari* (eta *martxant*), *mirabe* eta *nirabe* ‘morroia, peoia’, *motxale* ‘ardi-moztailea’ (Otsagabian bezala, konparazione), *mutil* ‘morroia’, *nekazari*, *ofiziale*, *okin*, *ostatari* ‘ostalaria, ostalerra’, *peon* (→ *peontza*), *predikari*, *sakristau*, *tabernari*, *txastre* (→ *txastrego*), *unide*, *zerbitzari*, *zerrajari* (*sarrallu* eta *zerroju* darabiltza), *zillargille*, *zapatain* eta *zurgin* (→ *zurgingo*).

Idazlea bizitu zen garaian ibili ohi ziren tresna, lanabes eta antzekoen hiztegia ere azter daiteke Lizarragaren izkribuen bidez. Hona hemen ele horietako batzuk: *Akullo*, *aga* ‘haga’, *aizkora*, *alesta* ‘mustuka’, ‘estropajo para la vajilla’ Iraizotzen arabera (1978: 252), *alkitz(a)* ‘inausteko aitzurrak’, *altzur* (→ *al(t)zurtu*), *amu*, *auspo*, *bai(a)* ‘bahea’ (→ *baiastatu*) eta *mazelarri* ‘zulo

handiak dituen bahea', bertz, botella, bururdiko, bustarri (→ bustartu, buztartu), butzatore 'suila' (gaztelaniazko 'pozal', 'cubo'), danbore, eltze, erloju, erroka 'gorua' eta ardatz (→ errokatu), errueda, estrazi(a), eskoba, eskutako oial, ezkila eta txintxa 'exkilattoa' (→ soñatu 'jo'), ezpata (→ magi), ezpore 'ezproia' (cf. zenbait lekutako arratore 'arratoia'), fale 'joarea', ganbela, gantxo, goatze 'ohea', golde eta arraxa ('reja del arado' erdaraz), igitai, ispilu, jikarra eta katuli 'katilua', kabiko 'gabia', 'mailu handia' eta mallu 'mailua' (ikus, alabaina, Iraizotz, 1979: 134), kanibeta 'labana' eta nabala 'bizarra eta ilea egitekhoa', kapatxa edo esporta, kerren 'gerrena', itze 'iltzea', kaskarabil 'kriskitina', katea, kindar 'giderra', krisallu, kuna 'sehaska', kupela, kuxina, laia (→ laiatu), ladrillu, lakio, pertika edo baldurro, mai, mise, ontzi, orratxikin 'iskilimba' ustez, orratxuste 'orratza' (→ orratxustekale, orratxustearen begia), orratz 'orratza', orraxa 'orrazia', pitxera 'pitxerra' (pitxera bat ur, pitxera bat ardo), plater, purexak 'guraizeak', sarde, sare, sarrallu eta zerroju, saski eta zare, soka eta lotzaki, tella (→ tellatu), txarrantxa (→ txarrantxatu), txastagin 'daratulua', zagi 'zahagia' (≠ zai 'zahia') eta itzagi (< idi + zagi), zaku, zartegi (→ fritatu), zerra, zizel, e.a.

Beste sail polit eta interesgarri bat animalien izenei dagokiena da; hauek, gainera, Bonapartek bildutako materialetan ageri direnekin aldera daitezke, nahi izanez gero: *Animale* (→ *animaletu*, eta *aberetzar* pertsona batez ari delarik), *abea* 'habea' (Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua* delakoan sobera murrizgarria den *ipar.* marka darama; Bonaparteren materialetan *abe* ageri da, -a gabe) (→ *abeatu*), *abre* 'behorra?', 'zaldijendea'? (→ *abeldun* 'jinete', 'gente a caballo', Iraizotz, 1978: 246; Bonapartek bildutako datuetan *chevaux*, etc.-ren baliokidetakoa ageri da *abre*), *agila* (ikus *arrano*), *aingira* (materialetan *angila* dago Elkanon eta Garesen, *aingire* Oltzan eta Goñin), *alkon*, *amorra*, *ar* 'harra'; *ardi*, *ari* 'aharia' eta *axuri*; *arenke*, *armiarma* eta *armirmau* (→ *armirmau sare*; Bonaparteren materialetan *armimau* dago), *arrai*, *arrano* ('putrea' da garbiro Lizarragaren idazkietan, nahiz Bonaparteren materialetan *arrano* 'aigle' eta *saizuri* 'vautour blanc' azaltzen den), *arratio* 'arratoia', *arrero* eta *eskorpi*, *artz*, *asto* eta *astoko*, *atxanini* ('tximeleta'; cf. Minaberrik [1998: 71] darabilen *altxalili*); *auntz*, *antxume* (printzearen materialetan *auntxume* dago) eta *aker*; *axari*, *bale(a)*, *barbu* 'xarboa', *baseizia* (hau ez dator bat Bonaparteren materialetako *eiza* 'gibier'-ekin, formari dagokionez betiere), *basurde*, *bior* eta *zaldi*, *egaste* 'hegaztia' (→ *bolatu* eta *egatu*; printzearen materialetan *erazki* dago Elkanon adiera honekin), *eltxo* eta *uli* (→ *ulitzar* → *exten*), *erbi*, *erlattan(a)* 'liztorra' (Bonapartek *erlastain* dakar Elkanorako; cf. Udabe-Beramendiko *erlastiñe*), *erle*, *gatu*, *idi*, *inare* 'enara' eta *inarekume*, *kamello*, *kangrejo* edo *karramarro*, *karatxori* 'etxetxoria', 'txolarrea', *kaskazapo* 'kaka-lardoa' (OEH-n, Iraizotzi [1978b: 123] jarraikiz segur aski, «cierto animal acuático» dela erraten da, oker, bistan denez, materialetan 'escarbot' dela zehazten baita), *kukuso*, *langosta*; *larrapo* (Iraizotzek biltzen du, eta hau da,

izan ere, Bonaparteren materialetan Elkano-Gareserako ageri den aldaera), eta *zapo* (ikus *urapo*); *leon*, *loña* ‘loira’, ‘madrilla’, *mando*, *miru*, *mono* eta *mona*, *mormota* («*ala nola arri pean dauden mormotak akabatzeke modua baita arria goraturik agertzea*», JMESB, 150; «*nola arrak ta mormotak ongarrian*», DCCb, 332), *olagarro* edo *pulpo*; *ollar*, *ollo* eta *txita*; *orein*, *orkatz*, *otsarrai* edo *otsorrai* ‘bele mota zenbait’ (*otsorrai* ‘corbeau’ materialetan), *otso*, *papagaio*, *sagarroi*, *sagu*, *sardina*, *satitsu*, *sator*, *suge* (eta *serpiente*, *bibora*), *tigre*, *txerri*, *azienda beltz* edo *animale beltz*, *txinurri*; *txori*, *txorixazale* edo *xorixanzale* ‘hegazti harraparia’ itxura duenez; *urapo* (‘igela’ da hau Iraizotzen arabera, 1979b: 314); *uso*, *usatortola* (*usatortol* materialetan), *usakume*; *zakur*, *tzakur*, *txakur*, *txakurto* (ikus *gorago*), *artzanor(a)* eta *etxaperro* (< *etxe* + *perro*) (ikus Iraizotz, 1978: 260), *zamari*, *zezen*, *zirain* ‘izaina’, *zorri* eta *bartz*, e.a.

Orain Lizarragak darabiltzan errepikapenetako batzuk ikusiko ditugu: *Aisa-aisa*, *apal-apala*, *arin-arin*, *bam-bam-bam* («*Bitarteko ezkildorre-kaskoan zego kontino argitzen zuzi edo antortxa andi bat bam-bam-bam, turditu gabe argia batere elurketa guziareki*», JMESB, 441, «*ta itxekirik [labea] bam-bam-bam zegoelaik [...]*», HGN1, 329), *bat-banaka*, *bat-batean*, *beiti-beitia*, *berla-berla*, *berri-berritan*, *bete-betea*, *dar-dar-dar*, *dal-dal-dal* («*asi ze ikar-ratzen dal-dal-dal*», JMESB, 136), *dei ta dei*, *doi-doia*, *dra-dra-dra* («*ikus-teunte eldu direla nausia ta mutila bi kamelloetan dra-dra-dra*», ibid., 361), *dre-dre-dre* («*eta erraten zuela guzia dre-dre-dre utsin gabe*», ibid., 182), *epel-epela*, *ertxi-ertxia*, *eske ta eske*, *flore-florea* («*gizagendearen flore-florea*», HGN2, 612), *geldi-geldia*, *gilin-gilin* (joarearen soinua; Iraizotz, 1978b: 467), *giri-giri* (*ase*, *bete*) ‘erabat aserik, arrunt beterik’ (ikus, hala ere, Iraizotz, 1978b: 466), *guti-guti*, *gutika-gutika*, *ikar-ikar*, *ildorka-maldorka* ‘hiltzeko zorian’, ‘hil urran’; *ingur-ingur*, *ingura-mingura* edo *ingura-mingira*, *itsu-itsua* eta *itsu-itsuttoa*, *ixil-ixila* eta *ixil-ixilttoa*, *ken ken*, *ker-ker-ker* edo *kerro-kerro* ‘lerro-lerro’, ‘elkarren segidan’; *kur-kurra*, *len-lena* edo *len-lenik*, *lento-lentoa*, *mar-mar*, *nasteka-masteka* («*konfunditzen baitute guzia ingura-minguraeki, nasteka-masteka, ezin daizkela entenda*», UIGPL, 121), *negar ta negar*, *oben-obena* ‘hoberen-hoberena’, *ososo*, *plau-plaua*, *salto-malto* («*ta salto, malto, kantu*», Satrustegi, 1976: 221), *tripili-trapala*, *txusto-txustoa*, *umil-umila* edo *umil-umilttoa*, *uzkur-uzkurra*, *zabal-zabala*, *zauka-zauka* («*ajolakabe utsak, zauka-zauka jan, edan, lo egin, ta datorrena datorrela*», DCCb, 245), *zuzen-zuzena*, eta beste.

Jarraian Elkanokoak darabiltzan esamolde, erranairu eta, oro har, fraseologiaren munduan sar daitezkeen itemak aipatuko ditut. Mundu zabala da, eta aberatsa kasu honetan, gure idazleak maizxko ibiltzen dituelako, anitz aldiz aitzinean duen gaztelaniazko ereduari jarraikiz. Garbi ikusten da, dena dela, beste batzuk jatorrak direla, hots, alderdi honetan erabiliak zirela, eta, itzulitakoetan, beti errimarazten, errima ematen saiatu zela, ereduak zuen ozenta-

suna euskarazko aldaerak ere izan zezan. Hona hemen batzuk: *Alako batez* ‘halako batean’, *alakorik ala* («*alakorik ala erran nue, denbora pasa*», ‘sin más ni más, sin mala intención, por pasatiempo’, Iraizotz, 1978: 251), *ala edo orla* eta *alas edo olas* ‘nola edo hala’, *an-emenka* eta *an-emenean*, *ara-ara!*, *arat-onat* edo *arat eta onat*, *aski ta sobra* (*izan*), *baze ezpaze*, *bein edo bein*; *beingoas betikos* eta *betikos beingoas* ‘behin betiko’; *beñik bein* edo *beñik pein*; *beren ustes eta antustes*; *erran eta egin*, *gaizki erranka*; *gau ta egun*, *uda ta negu* («*S. Viril egon baze iago ezi berreun urte aditzen txori baten kantua Leireko peña ta sasi gaien ertean gau ta egun, uda ta negu*», JMESB, 539); *gerostik onat* edo *gerostik alzi-na*, *goiti ta beiti*, *goiz-arrats*, *goiz edo berant*, *guti-gorabera*, *jaun eta jabe* (*izan*), *larru ta ezur hutsetan* (*egon*), *lenbañolen*, *meatxus ta balakus*, *nonbait or*, *or konpon*; *nola etorri ala joan mundutik*, *nola buratsoak ala umeak*, *nolako langi-na alako lana*, *bizia nola*, *fina ala*; *ones on*, *gaitzes gaitz*, *ones edo gaitzes*, *ones eta gaitzes* («*ones edo gaitzes, amores edo dolores, erregalos edo palos*», DCCb, 294); *on dakiola*, *protxun dakiola*, *protxun dakiotela*, *protxu dakiola*, *protxu dakizula*; *pareanpar* (*idiki*) ‘(abrir) de par en par’.

Gure autoreak ‘bakarrik ere (ez)’, ‘bat ere (ez)’ adierazteko *bakotxik ere* (*ez*) ibiltzen du, eta ‘bakan batzuk’, ‘gutxi batzuk’ errateko *bakan zenbait*, *bakotx batzuk*, *zenbait bakotx* edo *zenbait bakoxtto*. Inoizka *ez + partizipioa + bai + partizipioa* itzulia darabil, gertatzeko puntuan dena adierazteko: *Ez erori bai erori* (*egon*), *ez ito bai ito* (*egon*). Aditzekin moldatzen dituen beste esamolde batzuk *datorrena datorrela* eta *zetorrena zetorrela*-ren tankerakoak dira, *zer gerta ere* ezagunaz landara. Norbaiti zerbait ez zaiola axola edo ez zaiola axola izan behar errateko *zuri zer zaizu?*, *guri zer zaigu?*, *ari zer zaio?*-ren modukoak ibiltzen ditu maizkara.

Gaztelaniako *obras son amores y no buenas razones*-en euskal kide-tako *obrak dire amore*, *ez itz onen kolore* darabil behin baino gehiagotan, *a Dios rogando y con el mazo dando*-ren baliokidetzat *dei Jainkoari ta eutxi kabiko-ari*, *otoi Jainkoari ta eutxi kabikoari*, edo *Jangoikoari eskatus*, *ta malluas trabajatus* ematen du, eta *mucho ruido y pocas nueces* adierazteko *arrantze txar bat eta anitz karaka* edo *arrantze txar bat eta guzia karaka* du. San Mateorena *beren begian soliboa ikusi nai ez*, *ta berzearen begian ilaun iduri bat ere bai* (DCCb, 313) itzultzen du eta *coger, agarrar el toro por los cuernos*-en hurbile-kotzat *idia adarretik*, *ta gizona bere itzetik lotzen da* (DCCb, 324) darabil. Erdarazko *noches alegres mañanas tristes* gure hizkuntzara *arratsak alegre goizak triste* iraultzen du, errimarik ez badu ere, eta *dime con quién andas y te diré quién eres* euskaraz *erran zadazu noreki zabilzan*, *eta erranen dizut nor zaren* (UIGPL, 161) ematen du. Bestalde, *de tal palo tal astilla* erranairu edo «erranttoa» *astoin umea astoko* da Lizarragarenean, *ojos que no ven corazón que no siente*, berriz, *begiak ez ikusi*, *gogoak ez senti* (UIGPL, 130), eta *el que la hace la paga*, azkenik, *in duenak paga* (HGN3, 858).

Erdaraz (hain) ezagunak ez direnen artetik hauek aipa daitezke: *Batak gora, berzeak gora, batak kanta, berzeak kanta, ta deabruak danza, ta eman auspoas* (DCCb, 251), *zaiaren bilzale ta irinaren barrazale* (UIGPL,100), *gizonkia da sua, emastekia istupa, eldu da deabrua ta asten da fuka* (HGN2, 615), *gure tzakurrak muturra luze, bera bekala berzeak uste* (UIGPL, 287), *gabea erdi mantenu* (Iraizotz, 1978b: 463), *gasterik zar baize, ta txipirik andi* (JMESB, 460). Bestelako hitz jokoak eta elkarrekin nolabaiteko antza edo erri-ma dutenak ere badarabiltza: *Ezta ikuste gura ikuste utsa eta utsala* (JMESB, 538), *urrindurik deshonestidades arimak, elkar laudatus, ta kontatus goapo, ta eztire goapo, baizik larrapo* (DCCb, 291), *bizi gau dela labor, ilzea segur, kontuak ertxi, sentenzia segi* (HGN2, 612), *orgatik da errana txakurrarain txainkurias ta emastekiaren zinkurias ez fia* (UIGPL, 127), *bekatu iteko goapo ta penitentzia iteko flako* (HGN3, 855), e.a.

Bukatzeko, *ederritsusi* ‘pundonor’ hitza aipatu nahi dut, gero Orixek ‘tener amor propio’ adieraz-edo ibiliko duen *nork bere buruaren ederritsusia izan* esaeran agertzen dena (ikus OEH, *eder-itsusi* sarrera). Lizarragak testu honetan darabil: «*Arma, pelea, ta emankara afizionatua, koleran su bat, ta gogor kruel piedade gabea, nola peñaskoa balitz, ta altzairuskoa. Orren gañetik ederritsusi gabeko deshonesto eskandalosoa, edeki ziona bere anaiari andrea bortxaz: eta nior ezin atrebi erratera itzik*» (JMESB, 329).

BIBLIOGRAFIA

- APEZETXEA, J. (1975): “Programa de vida cristiana en una aldea de la zona de Pamplona en el siglo XVIII”, *FLV* 19, 89-127.
- (1978): *Joaquín de Lizarraga (1748-1835). Un escritor navarro en euskara*, Nafarroako Foru Aldundia, Príncipe de Viana – CSIC, Iruñea.
- (2001): “Comentario del Padrenuestro de Joaquín Lizarraga, el Vicario de Elcano (1745-1835). Cuarta Petición. VII”, *Scriptorium Victoriense* XLVIII, 109-151.
- ARTOLA, K. (2006): “Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (1- sarrera eta lehen galdera-sortak)”, *FLV* 103, 393-428.
- AXULAR (1643): *Guero*, Bordele. Aita Luis Villasantek 1976an (Jakin, Arantzazu-Oñati) egindako argitalpena erabili dugu.
- AZKUE, R. M. (1969): *Morfología Vasca*, lehen alea, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.

- CAMINO, I. (1997): *Aezkoako Euskararen Azterketa Dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua, Lasarte-Oria.
- (2004): *Hego-nafarrera*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- COROMINES, J. & Pascual, J. A. (1987): *Diccionario Crítico Etimológico Castellano e Hispánico*, Gredos, Madril.
- HARANEDER, J. (XVIII. m.): *Jesu Christoren Evangelio Saindua*; Patxi Altunak 1990ean paratu argitalpena ibili dugu, Euskaltzaindia, Bilbo.
- INTZA, D. (1974): *Naparroa-ko euskal-esaera zarrak*, Príncipe de Viana, Iruñea.
- IRAIZOZKOA, P. (1978): “Vocabulario y fraseología de Joaquín Lizarraga. I”, *FLV* 29, 245-297.
- (1978b): “Vocabulario y fraseología de Joaquín Lizarraga. II”, *FLV* 30, 461-486.
- (1979): “Vocabulario y fraseología de Joaquín Lizarraga. III”, *FLV* 31, 121-162.
- (1979b): “Vocabulario y fraseología de Joaquín Lizarraga. IV”, *FLV* 32, 303-332.
- IXURKO, F. (1981): “Joakin Lizarraga, Elkanokoaren liburuaz” (*JLEL*), *Euskera* 26, 329-347.
- JIMENO, J. M. & Salaberri, P. (1994): *Toponimia de la Cuenca de Pamplona. Pamplona / Iruña*, Onomasticon Vasconiae 12, Euskaltzaindia, Bilbo. Bada argitaraldi berria, Pamielak ateratako Jimeno Jurioren *Obras Completas*-eko 47. zenbakian, Iruñea, 2006.
- KAMINO, P. & SALABERRI, P. (2006): *Luzaideko euskararen hiztegia*, Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia, Mendaur bilduma III, Bilbo.
- LAFON, R. (1980): *Le Système du Verbe Basque au XVI^e Siècle*, Elkar, Donostia – Baiona.
- LEIZARRAGA, J. (1571): *Iesus Christ Gure Iaunaren Testamentu Berria*, Arroxela. Guk Euskaltzaindiak Bilbon 1990ean egindako argitalpena ibili dugu.
- LIZARRAGA, J. (1979): *Doctrina Christioarén Cathechima I. Fede Christioarén gáin* (DCC), *Euskal Klasikoak* 1, J. Apezetxeak paratu argitalpena, Euskaltzaindia, Iruñea.
- (1983): *Koplak*, *Euskal Klasikoak* 9, J. Apezetxeak paratu argitalpen kritikoa, Euskaltzaindia, Bilbo.

- (1984): *Ongui Iltzen Laguntzeco Itzgiaic (OILI)*, Euskal Klasikoak 10, F. Ondarrak paratu argitalpen kritikoa, Euskaltzaindia, Bilbo.
- (1990): *Urteko Igande Guzietarako Prediku Laburrak (UIGPL)*, Euskal Klasikoak 16, F. Ondarrak paratu argitalpen kritikoa, Euskaltzaindia, Bilbo.
- (1994): *Jesukristo, Maria eta Santuen Bizitzak (JMESB)*, J. Apezetxeak eta F. Ondarrak paratu argitalpen kritikoa, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- (2004): *Doctrina Christioaren Cathechima (DCCb)*, J. Apezetxeak prestatutako edizioa, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- MINABERRI, M. (1998): *Marijane konta zan*, Elkarlanean, Donostia.
- ONDARRA, F. (1982): “Materiales para un estudio comparativo del vascuence de Elcano, Puente la Reina, Olza y Goñi”, *FLV* 39, 133-228.
- PAGOLA, R. M. (2004): *Bonaparte ondareko eskuizkribuak*, CD formatuan kaleratutako lana, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- PAGOLA, R. M. eta beste (1996): *Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak. Hegoaldeko goi-nafarrera*, lau ale, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- SALABERRI, P. (2002): “Acerca del euskera de Pamplona y sus alrededores”, in *La Comarca de Pamplona. Territorio, Economía, Sociedad e Historia*, A. García-Sanz zuz., Iruñea, 223-241.
- (2004): “Artatzako euskal testua. Transkripzioa eta hizkuntza azterketa”, *FLV* 97, 537-554.
- SALABURU, P. eta LAKAR, M. (lag.) (2005): *Baztango Mintzoa: gramatika eta hiztegia*, Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia, Mendaur bilduma II, Bilbo.
- SATRUSTEGI, J. M. (1976): “Nuevo documento no catalogado de Joaquín Lizarraga sobre los bailes”, *FLV* 23, 205-234.